

Esperientzia handiko mendizalea Garbiñe Uriartek kontau deusku mendira joateko jakin beharrekoak

Artaunen jaio zan eta bertan bizi da. Txikitan etxeokaz eta gaztetan lagunak hartu eban esperientzia, gero Ganzabal Mendi Taldean eta Marimendin zabaldu ebana. Marimendi, 40 urtetik gorako andra euskaldun mendizaleen taldeagaz egin ebazan mendirik altuenak. Zeharkaldiak egitea be asko gustetan jako eta inguruko mendiak maite ditu gehien. **11. orrialdea**



Alex Txikon eta espedizionakideak Manasluko Oinarrizko Kanpamentuan

10. orrialdea

Bost urte beteko ditu aurten OEEK Arratian

Igorren lehenengo batzarra egin zanetik, hainbat proiekturi ekin deutso errefujiaduen aldeko plataformek.

Hemen bizitza bat hasten lagunduten deutsee plataformakoak errefujiaduai. Hona etorritakoan oztopo administratibo ugari topatzen ditue eta herrietako Harrera taldekoak duintasunerako behar diranak eskuratzen lagunduten deutsee.

Harrera proiektua ez da Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformek Arratian daukan proiektu bakarra. Arteko Bildosolan etxe bat erosi dabe Basoa izeneko proiektuari ekiteko. **8. eta 9. orrialdeak**



Presoen aldeko ekitaldietan jente ugari batu zan



Aurtengo osasun egoerearen aurrean, presoen eskubideak aldarrikatzeko urteroko Bilboko manifestazio jentetsua egin beharrean, urtailaren 9an, herrietan ekitalditxoak egitera deitu eban Sarek. Arratia, Ubide eta Zeberion, guztira, zortzirehun bat lagun batu ziran. Ekitaldiak desbardinak izan arren, manifestu bera irakurri zan guztietan. **6. orrialdea**

IGORRE

Irune Costumeroren alabearen zaintza aitari emon deutso epaileak prisazko kautela neurrien ebazpenean

Igorrekoak, zaintza partekatua berrezartzea eskatu eban, baina epaileak ez dau onartu. Aitari emon deutso zaintza, 2020ko zemendiko forensearen txostenak ondorioztatu arren, umearen aitarenganako errefusak bere horretan segiduten dauala 3 urteren ostean. Amaren bisita-araudia zabaldu egin dau autoak, eta aste-goen bitik behin, amarenean egin ahal izango dau lo umeak. **7. orrialdea**

LEMOA

Kultura lehenesten daben aurrekontuak onartu ditue Lemoan

Guztira 4.297.518 euroko aurrekontuak dira. Urigintzan, Elizondoko Kulturgunearen barriztapena da proiektu nagusietako bat, eta bardin-tasuna, gizartekintza eta kulturarako diru partidak hazi dirala dino alka-teak. **5. orrialdea**



Ipin Erotiko Lehiaketa

SARI BANAKETEA zuriñe Yarrantuk aurkeztuta
19:00etan, Lemoako kiroldegian

Publikoaren artean jostailu erotikoa bi zozketatuko dira.



IZEN-EMOTEA:

www.lemoa.net - urtallak 13-20

*2021/01/13 09:00etatik 2021/01/20 09:00etara

Urtailaren 23an
Bertso trama
erotikoa

Arkaitz Estiballes tramagile
Uxue Alberdi eta Sustrai Colina bertsotan



Literatura txokoa

LOS ASQUEROSOS

Aspaldi hasi ginan etxean irakurri gura doguzan liburuak zerrenda baten idazten, hazi baino egiten ez dan zerrendan. Zerrenda horretarako iturri garrantzitsu bat La 2 katean emoten daben *Página 2* programea izaten da, eta oin dala hile bi inguru programa horretan Santiago Lorenzo agertu zanean liburu honeri buruz berbaz, atoa sartu zan *Los asquerosos* nire zerrendan. Halanda be ia ahaztuta euki dot, baina nire bikotekideak liburudenda baten ikusi eban eta oparitate bururatu jakon (nire zerrenda nik baino hobeto ezetuten dau). Astebete eskas iraun deusta liburuak.

Ez neban ezetuten Santiago Lorenzo idazlea, baina bere alkarizketea entzun eta gero Manuel

ezetuteko gogoia sortu eustan. Manuel Madrilen bizi dan persona arrunta da. Etxetik urtetan doan baten manifa baten dagoan polizia batek eraso egiten deutso. Bera defendidu egiten da, eta polizia larri zaurituta geldituten da. Gertaera honengaitik iges egitea ebatzen dau. Bere osaba baten laguntzeagaz hutsik dagoan herri batera heltzean da, han ostonduta egoteko asmoagaz. Bizitza barri honetara ia ezer barik zelan moldatuten dan kontetan deusku liburuak lehenengo atalean, eta gero bizitza barriro zelan aldatzen jakon herrian "nazkagarriak" agertzen diran momentutik aurrera. Hasikeratik enpatia sortzea lortzean dau Manuelek, beragaz identifikautu sentidu arazoten

deusku. Halanda be, behin baino gehiagotan pentsau arazoten deusku zu zeu be ez ete zaran "nazkagarrien" taldekoa izango.

Santiago Lorenzo izatez Portugaletekoa bada be, Segoviako herri sano txiki baten bizi da, eta ondo ezetuten dauzan Espainiako herri txiki eta abandonaduen errealidadea kontetan deusku eleberri honetan. Baina ez da hori liburuan erabilten dauan gai nagusia, bat-bateko aldaketen aurrean egokitu beharraz idazten dau, bide batez gaur egungo gizaratearen kritika zorrotza egiteko aprobetxatuz: konsumismoa, norberarengan baino ez pentsetea, zer garan (eta ez garan) erakutsi beharra... Zoriontsu biziteko gizarateak zer agintzen dauan eta

benetan norberarentzako garrantzitsua zer dan pentsau arazoten deusku.

Liburuaren amaierarantza istorioak indar apur bat galtzean badau be sano gustura irakurri dot eleberria. Egilearen idazkerea asko gustau jata, hiztegi aberatsa baina ulergarria erabilten daualako eta umorea be ez dalako falta. Liburu amaiteu eta gero Lorenzoren obra irakurten (eta ikusten, zinegilea be bada ta) jarraituteko gogoia gelditu jata, eta izena benetakoa ez bada be (Manuelen osabak herriari jarritako izen fiktizioa dalako) Zarzaniel mapan bilatzeko gogoia be badaukat, berak gurako ez baleu be Manuelegaz kalean kurutzatu ahal izateko.

Hektor Rodriguez



Santiago Lorenzo

Los asquerosos

Blackie Books, 2018

224 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 18tik 24ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 25etik 31ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 1etik 7ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzio burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Txontxor



Txontxor adberbioa personeagaz zein arboleagaz erabiltzen da. Itxuraz eta osasun aldetik ondo, polito, osasuntsu dagoala esan gura dau (txóntxor, ahoskatuta). Hau da, dotore edo pertxent dabilen personea txontxor-txontxor dagoala esaten da. Berba honek badauka beste esangura desbardin hau: jentea atsegina edo tratuan goxoa bada txontxorra (txontxórra, ahoskatuta) izaten da. Adibidea: "Operau danetik hona txontxor-txontxor ikusten joat hire ama kaletik!".

ERETXIA

Sahara gerran dago

Atzen hamarkadotan Arratiako familia askok ume sahararrak hartu ditue eta Saharako familiak etorri dira Arratiako herrietara biziten. Horrek euskaldun eta sahararren arteko laguntasun, alkartasun eta lankidetzak loturak sortu ditu.

Hainbat momentutan, gure herria informazioaren gune erdian egon da Mendebaldeko Sahara dan gure lurreen bizi gura dogulako. Oingoa da momentu horreetako bat. Gerran gagoz! Zelan heldu gara egoera honetara? Pentsetan dogu garrantzitsua dala jakitea zer gertatu dan, nortzukaz eta zelan heldu garan puntu honetara. Historia apur bat egin daigun.

1878an Berlingo itunak sinatu ziran. Itun horreetan Europako potentziak banandu eben Afrika euren artean, erregela eta kartaboiak marraztutako herrialdeak eginaz. Banaketa honetan Espainiari Mendebaldeko Sahara tokau jakon. Ordura arte sahararrak, bizimodu nomada egiten eben euren ganaduentzako larreik onenen bila, tradizioz Saguia el Hamra eta Rio de Oro deitutako lurraldeetan.

Momentu horretatik aurrera, Sahara, Espainiako kolonia bihurtu zan; sahararren eta Espainiako kolonoen arteko alkarbizitza baketsua zan. 1968an hasiko zan sortzean askapen mobimentua Sidi Brahim Basiri-ren lidergoagaz, Saguia El Hamra eta Rio de Oro askatzeko Erakunde Aurreratua izenagaz. Hau, NBERen Europako kolonialismoagaz amaituteko eta deskolonizazio mobimentuen ekimenetatik sortu zan. 1970ean, erakundearen liderra atxilotu eta desagertu arazo egin eben. Hurrengo urteetan mobimentu nazionalistea zabalduen joan zan herritarren artean, eta 1973an, Fronte Polisarioa (Sagia El Hamra eta Rio de Oro askatzeko Fronte Popularra) sortu zan Basiriren erakundeari lekukoa

DAGNA ALAMIN KARMELE BEOBIDE HAMADA HATAB

hartzeako. El Uali Mustafa Sayed buru eukan mobimentuak lurralde osoa askatzea eskatu eta Espainiako estaduaren kontrako burruka armatua hasi eben. NBERen presinopean, 1974an Espainiak amore emon eta sahararrak euren etorkizuna ebatzi dagien erreferendum bat egiteko errola egiten hasi zan.

Bitartean, 1975eko urri bigarrenaren 16an, La Hayako Auzitegiak Sahara ez dala "inoren lurraldea" eta ez daukala soberanotasun loturarik ez Maroko ez Mauritaniagaz ebatzi eben; izan be, herrialde bi horreek lurraldea euren zala inoen. Ebatzi honen ostean, Marokok Martxa Berdea hasi eben Mendebaldeko Sahara okupetako. 1976ko zezeilaren 27an, Fronte Polisarioak, RASD (Republica Arabe Saharaui Democrática) aldarrikatu eben. Urte horretan bertan, Espainiak, sahararrak bakarrik ez ixtea agindu ebanak, Hiruko akordioak sinatu eban Maroko eta Mauritaniagaz, eta lurraldea ixtera konprometidu zan itun horretan, sahararrak euren zorira itxiz eta bere erantzukizuna eta sahararrai egindako aginduak bete barik.

Momentu honetatik aurrera, sahararrak Tinduf-eko (Argelia) errefujiadu kanpamentuetara joatera behartuta egon ziran Marokok napalm eta fosforo zurriagaz egindako bonbardaketetik igesi. Bitartean, Fronte Polisarioak, sahararren ordezkari legitimo moduan, jarraituten eban gerran Maroko eta Mauritaniagaz lurraldea askatzeko. 1979an, sahararren askapen mobimentuak

Mauritania gailentzea lortu eban eta Bake hitzarmena sinatu eben. Ordutik aurrera, gerrea Marokoren kontra izan zan. Bitartean Marokok minaz jositako hesi bat egin eban, Sahara iparretik hegora zeharkatuz, momentu honetan munduko hesirik luzeena dana (Lotsaren Hesia). 1991n, NBEk Saharako Erreferendumerako Misinoa sortu eban (MINURSO) eta NBERen laguntzeagaz Fronte Polisarioak eta Marokok bakea sinatu eben Konponketa Plana deitutakoaren bitartez. Bertan adostu zan Saharako herriarentzako autodeterminazio erreferenduma deituko zala.

Harrezkerotik, sahararrak konfiantza ipini eben NBERen erreferenduma egingo zalakoan. 30 urte beranduago ez da erreferendumik egin, Marokoko okupazio indarrak etenbarik trabak ipinten ditu-eta. Urte honeetan guztietan, Saharako herritarrek, basamortu gorrietako errefujiadu kanpamentuetan edo giza eskubideen etenbako urraketak sufriduz Marokoren okupaziopean bizi behar dira. 2020ko zementiaren 13an, Marokoren Bake hitzarmenaren etenbako urraketen aurrean, aldatzea gertatu zan. Izan be, saharar zibilen konzentrazio baketsu bat erasotu eban Marokoko ejerzitoak. Mendebaldeko Saharako Geurguerat zonaldea Mauritaniagazko merkataritzarako erabiltea eragotzi gura eban konzentrazioak, Marokok modu ilegalean erabiltzen dau eta. Eraso honegaz, Fronte Polisarioak su-etena amaitutzat jo eta, herritar guztien babesagaz, burruka armatuaren bideari ekin eutsan barriro. Marokok ukatu egiten dau gertatutakoa eta gerraren gaineko isiltasun informatiboa ezartzen saiatzen da, eta zarata handiz iragartzen dau gure lurraldearen gaineko Trump-egaz egindako akordio "ilegalak". Horregaitik guztiagaitik, oin inoz baino gehiago, lagundu gaizue isiltasun informatibo hau apurtzen, ze hilabete bi beranduago egoera ez da aldatu: Sahara gerran dago!

***Erredakzioan itzulia**

Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112

Publizidadea: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com www.begitu.org

LUMATUTEN

JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTAHitanoa
Gorbeialdean

Euskeraz hiru aditz tratamendu daukaguz: hitanoa, zuka eta berorika. Gehiago edo gutxiago Gorbeialdean hirurak darabilguz, berorika gutxi erabilten dogularik. Oingo honetan, goazen hitanora: hi+to+no>hitano. Hi, bigarren persona, to/toka, maskulina eta no/noka, femeninoa. Aikomen bere erabilera: toka, gizonezkoak gizonezkoakaz eta andrazkoak gizonezkoakaz, eta, noka, gizonezkoak andrazkoakaz eta andrazkoak andrazkoakaz. Hitanoa, altxor bat dogu aditz jokoan, baina zoritxarrez galtzean dabil, batez be, noka. Errazoiatariko bat, errespetuarena. Euskerazko, hi, gazteleraz, *tu*, litzateke eta euskerazko, zu, gazteleraz, *usted*. Jakina, gure hitanoa eta gaztelerazko, *tuteoa*, lagun arteko erregistrotzat euki dira eta nagusi, eleizgizon, maisu, agintari eta abarri h-

tano egitea errespetu faltatzat euki dogu. Horrexegaitik baztertu da. Baina, hitanoa, aditz erregistro zaharrena izateaz gainera, sano inportantea da. Aikorzan kasurako adibide bat edo bi: aditzean generoa erabiltea, (egin dok/dona); esaldi nagusiak hitanoz eta menpekoak, zuka erabiltea (etorri dala esan dok/dona). Belaunaldi gazteetan batez be, hitanoa, esaldi menpekoetara be eroan da. Esaterako, lehengo adibidea hartuz: (etorri doala/dokela esan dok/dona). Beraz, benetan daukan garrantziagaitik, berreskuratu daigun hitanoaren erabilera, gauzeztandu baino lehen. Zelan? Ba, osoan ez bada be, aditz forma arruntenak ikasi eta erabiliz adin guztikoen artean. Hitanoa erabiltea ez da errespetu faltea, eta berreskuratu gura badogu, ohitura aldatu behar dogu eta erabili hitanoa edozeineguz errespetuari faltatu barik. Hiru erregistroak dira erabiltekoak eta era horretara euskereak irabaziko dau. Eutsi deiogun hitanoari Gorbeialdean eta zabaldu haragora belu izan baino lehen, ezpabere: "mihin bako arrana ugerrak jan".

ZERTZEAN



MAITE BERNAOLA

Heztea

Txalupa bateri motorra ipintea modukoa da (umea/haurra/ikaslea...) heztea. Neurtu behar da, pentsatu behar da, orekatu... eta martxan ipini.

Baina, horretarako batek hauxe behar dau: arrantzale-sen apur bat pirata-sen apur bat olerkari-sen apur bat eta, batez be kilo eta erdiko pazientzia kontzentratua. Gurdikadea!

Kontsolagarria da pentsetea txalupa hori, ume hori, haur hori, ikasle hori urrineria joango dala ur ganean. Txalupa horrek gure berben kargea eroango dau urrineko portuetara, urrineko irletara...

Kontsolagarria da amestea, geure txalupa desegiten danean, txalupa barrietan geure banderak bizirik segiduko dauela.

Gabriel Celayaren *Educar* poemea, euskerara ekarrita.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ez da erraza holango egoera baten, gure egunerokotasuna aurrera eroatea. Merkataritza-guneak, dendak, tabernak... zarratuta topatzeak, beste alternatiba batzuk bilatzera garoz. Hondartzak, pasealekuak, herri txikiak, parkeak, bidegorriak, baso zein larreak, jentez gainezka topau doguz, gu tartean!

Herri txikiak jentea kokoteraino dago besteen zaborrak batzeaz. Uri edo herri handietatik hurreratzen diran batzuei, gogora arazo gura deutset, badagozala inguru pribaduak be, eta hesitutako larreetatik ibiltea, edozein portaletan euren kotxea ixtea, txakurren kakak ez batzea, animaliak uxatzea, edota mosuko barik herritik ibiltea normala iruditzen jakien galdetu gura deutset. Herri txikiak errespetu behar dira, eta bertako jentea oin-dino gehiago, eurei esker dago-eta gure historia eta kulturearen parte bat bizirik; beraz errespetetako asmorik ez badaukazue, geratu mesedez zuen etxeetan.

Gure mendiak be, alde ilun horreetako biktimak izan dira, igaztik aurrera Gorbeia adibidez, ingurune lar librea bilakatu da. Mendira joatea, danon eskubidea da, baina beti be errespetuz. Mosukoak lurrean eta erreketan, zabor ugari aparkaleku inguruetan, zigarrokinak nongura, animaliak uxatze eta bakean ez ixte horrek, aparkalekuak gainezka egoteak... arazo larri bat daukagula erakusten deusku.

Mendian, bakean, lasai eta isilik ibiltea hain gatxa ete da? Gure portaerak nazka emoten deusta.

Animalia eta landareak gu barrero etxeetan sartzeako gogotsu dagoz, lasai-lasai ibili ahal izateko. Holango eremuetan gu bisitariak gara, eta aurrerantzean naturaz gozatu ahal izateko, errespetuz jokatu beharko gunke, gure esku dagoalako jagotea.

Nerea Etxebarria



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa hagin klinikak
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Uriagaitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA - SINTASOLA - PAPERAK
Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 608 664 018

Troka
Lantzerak Agora II

LEMOA

Kultur prozesuko atzen faseari ekingo deutso Lemoak

Elizondon dagoan Kulturgunea barrizatzean ekingo deutso Lemoak Kultur prozesuko atzen faseari.

Erredakzioa

Horretarako diru partidea dago abenduan onartutako 2021eko aurrekontuetan. Kontuok EH Bilduko aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz atera ziran aurrera. Guztira 4.297.518 euroko aurrekontuak dira.

Diru sarrerak murriztu arren, oinarrizko zerbitzuak mantentzen direla eta barrantasuna, gizartekintza eta kulturarako diru partidak hazi egin direla azaldu deutso BEGURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriak kaltetu dituenentzat be dirua dago. "2020an, dirulaguntzetarako hiru deialdi egin doguz, ABEE edo langabezian geratu diranentzat, ostalarientzat eta enpresa txikientzat eta 2021eko aurrekontuetan be partida bat zabalik itxi dogu badaezpada".

Herriko alkarteai emoten jakiezan dirulaguntzak be mantentzen direla, euren lana herrian ezinbestekoa dalakoan.

Elizondoko Kulturgunea

Urigintzan proiektu nagusi bi ditu Lemoak aurtengorako. Bata, Arraibi auzoko

urbanizazioaren 2. fasea da eta bestea Elizondoko Kulturgunearen barrizatpena. Lanokaz, eraikinaren efizientzia energetikoa hobetu gura dabe, lehioak aldatu eta emergentziatzeko urtekerak egin, besteak beste. Eraikin honetan kokatuko dira musika entseguetako gela, arte gela eta Gazteleku barria.

EAJ-PNVren desadostasuna

EAJ-PNVkoak ezezko botoa emon euren esanetan, honeek ez diralako euren aurrekontuak. "COVID-19ak erakarritako egoera larriak gure herritarren beharizan zehatzai erantzutea eskatzen deusku. Zuzenean kaltetutako kolektiboai erantzuteaz gain, beharrezkotzat jotzen dogu, adibidez, familia bateragarri egiteko udal politikak aktibitatea edo gure herriko ume eta nerabeai euskera indartzeko neurriak eskaintzea" adierazo euren.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Zaharren egoitzetan hasi dira txertoak ipinten

Erredakzioa

Dimako Piedadeondo egoitzan urtailaren 12an hartu euren txertoa egoiliarrek eta txanda horretan egoazan zahar etxeko beharginak; Zeberioko Eusebio Aldekoa eta Arbildu egoitzetan, 14an; Bediako Jandonizzen be hartu dabe lehenengo dosia eta Dimako Arratiako egoitzan barriz, 19an hasiko dira txertoa ipinten. Izan be, atzeratu egin behar izan dabe COVID-19 agerraldi bat gertatu dalako. Gaixorik dagozanai gaixotasuna gaintu ahala eta Eguneko Zentrokoai be ipiniko jakie txertoa egoitzan bertan.

Egoitzako agerraldia

Guztira 10 behargin eta 39 egoiliar kutsatu dira Arratiako egoitzan agerraldia hasi zaneetik. Urtailaren 15ean, 10 langile horreetatik, 3 beharrean egozan PCR frogan negatibo emon ostean; beste 4, emaitzen zain, eta beste 3 isolamentuan.

Egoiliarrai jagokienean barriz, agerraldia hasi zaneetik 3 egoiliar hil dira, baina "ez dira COVID-19aren eraginez hil". Gaixorik dagozan egoiliarrek artatzeko Birjinetxe eta Unbe Laguntza Zentroetara aldatzen ditue batzuk, eta urtailaren 15ean, 16 egozan Birjinetxen, 1 Unben eta 17 Arratiako Egoitzan. Birjinetxetik egoiliar 2 itzulita egozan sendatuta; eta, Andere Ortuzar Arratiako Udalen Mankomunitateako presidentearen arabera, euren familien esanetan, beste 2 itzul-

tzekoak ziran astegoienean. Astelehenean, hilak 18, Unben egoana zan itzultzeko. Eta martitzenerako egoitzan dagozan 7 egoiliar gehiago guztiz sendatuta egotea espero ebala medikuak azaldu eban Ortuzarrek.

Greba Osakidetzan

Satse, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak Osakidetzan zentro guztietan greba deialdia egin dabe urtailaren 28rako baliabide gehiago eskatzeko. Izan be, euren esanetan Osakidetzaren egoera larri bueltea emoteko, "osasun publikorako EBko batez bestekoaren parekoa dan aurrekontu-partidea, osasun-aurrekontuaren %25 Oinarrizko Laguntzara bideratu; plantilla handitu ezkutuan dagozan enpleguak egiturazko plantillan sartuz; behin-behineko langileak finkatu; murrizketa guztiak itzuli; zerbitzu pribatizatuak itzuli, eta langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurriak hartu" behar dira.

Mobilidadea murriztuago

Urtailaren 13an, Lehendakariaren dekretu baten bitartez, neurri barriak ipini ziran indarrean, gitxienez, zezeilera arte egongo diranak. Neurriok joan-etorriak gehiago murriztuten ditue eta, salbuespenak salbuespen, ezin da lurralde historikotik urten; eskola kirola baimendu dabe, eta ez dira aldaketarik ezartzen ostalaritzan edo etxeratze aginduaren orduan.

ZEBERIO

Nieves Barrenetxea: "Koadru baten modura pintau dogu hormairudia"

2020ko abenduaren 14tik 19ra, EHU-UPVko Arte Ederretako pintura masterra egiten dagozan 5 ikaslek Mauriziaren omenezko hormairudia pintau euren Zeberioko Zubialden.

Erredakzioa

Frontoiko paretearen luzeera eta 5 metroko altuerak dauka irudiak. Nieves Barrenetxea, Zeberioko bizilagunaren proiektua zan hau eta EHU eta Udalaren arteko hitzarmen bateri esker gauzatu da.

Zelan sortu zan proiektua?

Arte Ederretako laugarren urteko ikasgai baterako prestatutako proiektu batetik sortu zan. Orduan bost ikaskidek eta neuk, hondatutako espazioak berregituratzeko proposamenak egin geuntsezan hainbat udaleri eta proiektu guztien gaia zan balioa emotea herri horreetako erreferente izandako andrai.

Hamasei urte dira ni Zeberion bizi nazala eta Zeberioko Maurizia maite dau. Kale bakarra dago eta Maurizia eta Leonen kale kantoia

deitzean da. Eta herrian dagoan kale bakarrari izen hori emon jakiko, horrek esan gura dau sano inportantea izan behar daua. Proiektu haretako proposamenetako bat, Zeberion Mauriziaren hormairudi bat egitea zan.

Baina itxialdia etorri zan, konfinamentua, eta dana parauta geratu zan, airean. Ikasturtea amaitu zan, unibersidadeak aurrera jarraitu ebalako, eta nire ikaskideak euren erkidegoetara itzuli ziran. Oingo ikasturtean, pintura masterrari ekin neutsan eta ikaskide barriak ezetu nebazan, eta masterra zuzentzen dauan Jesus Menendez-egaz egin neban berba, proposamena barriro egiteko.

Eta oingoan bai, oingoan egin zenduen hormairudia.

Ikaskideak apurtxo bat gehiago ezetu nebazanean eta dana

egonkortzen hasi zanean, proposamena egin eta baiezkota emon eusten Alex Martin Caseyk, Jon Amorrortuk, Fernando Coutok eta Felipe Lealek. Gogo handia eukiela esan eusten, paretak pinteteak estigma dauka eta baimen guztiakaz pintetako aukerea aprobetxatu gura euren.

Masterreko zuzendariak jarraibide batzuk emon euskuzan Udalgaz berba egiteko eta proiektua barriro martxan ipinteko. Akordio batera heldu ginan eta EHUko praktika moduan egin dogu.

Zelan izan zan egiteko prozesua? Sano denpora gitxian egin dozue lan handia.

Bai, topera ibili ginan aste osoan. Sano esperientzia polita izan zan, herriko jentea hurreratu egiten zan ikusteko zer egiten genbilzan. Marrazkia egokitze marra hori



eta more batzuk egin genduzan eta ohituta ez dagoanarentzat bitxia da. Teknikari jagokonean, hormairudiak egiteko erabilten dan teknika erabili beharrean, pareta koadru bat balitz moduan pintau genduan. Hormairudiak egiteko diseinu bat egiten da eta diseinu hori handira pasau. Holan, zentimetro bakoitzean ze kolore joango dan dakizu, baina guk konposizioa bertan egin genduan, espazioaren elementuak kontuan hartuz. Sartuko genduzan elementuak aurretik jakin arren, konposizioa gara-

tzen joan zan pintetan genduan bitartean.

Zer iruditu jakie Udaleri eta herritarrai?

Sano balorazioa ona emon deusie Udalak eta herritarrek. Herriko edadeko andra askok deitu deuste eskerrak emoten eta lan ona egin dogula esaten eta hunkitu egin dirala. Izan be, Maurizia izen handiko andrea zan, oso ezaguna. Inguru honetako edade batetik aurreragoko zein andrak ez dau Maurizia ezetuten? Sasoi haretako andra gitxi dagoz hain ezagunak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Zortzirehun persona inguru batu ziran Arratia, Ubide eta Zeberion presoek giza eskubideak aldarrikatzeko

Bidea Gara presoek aldeko mobilizazioak egin zituzten urtailaren 9an, Arratia, Ubide eta Zeberion. Guztira 800 persona inguruk hartu zuten parte herrietan egindako ekitaldietan.



Igorreko konzentrazioa.

Erredakzioa

Aurten Bilbon egin beharrean, Euskal Herriko 240 herritan egin ziren ekitaldiok salbuespeneko espetxe-politika behin betiko amaitzeko eta "etxerako, alkarbizitarako eta bakerako bidea" egiteko.

Urteroko moduan Bilbon manifestazio jentetsu baten alkartu beharrean, aurten herriz herri batu izan dira. Herri bakoitzean ekitaldi desbardina egin dabe. Areatzan berbarako, bertsolari batek bertso bat kantatu eban ekitaldi hasieran eta amaieran *Kalera kalera* kantua kantatu eban. Dimako ekitaldian be egin ziren bertsolariak eta kantariak, baita otzara baten zozketa be eta herrian zeharreko manifestazioak gaz amaitu eban.

Ekitaldiak desbardinak izan arren, guztietan irakurri zuten manifestu bera.

Arantzazun 45 lagun inguru; Areatzan, 100; Artea, 35; Diman, 150 bat; Igorren, 180 inguru; Lemoan, 100 bat; Ubiden, 30; Zeanurin, 65 eta Zeberion 90 inguruk hartu eban parte Sarek deitutako mobilizazioetan.

Bidean

Nahikoa ez izan arren, atzen hilabete eta urteetan Frantzia eta Espainian emon diran aldaketak

garrantzitsuak dirala eta "bidea badala erakusten" daukela honen adierazo eta sei eskari egin ebazan Sarek. Euskal presoak euskalherriatzea, preso guztiak gradu-progresioa ahalbidetzea, larri gaixo dagozan presoak eta

edadez nagusiak diranak etxeratzea, gurasoak espetxean dituen umeak gurasoak bizitzeko daukien eskubidea errespetatea eta Frantzia betetako zigor urteak Espainian ezarritako zigorrean kontuan hartzea eskatu eban.



Ubideko konzentrazioa.



Zeberioko konzentrazioa.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskararen Ginkana, taldekako lehiaketan izena emon daiteke

Erredakzioa

Lagunak ondo pasetako eta euskarearen alde erabilteko 3.000 euro irabazteko aukera dakar Euskararen Ginkana taldekako lehiaketeak. Izena urtailaren 31ra arte emon daiteke www.euskararenginkana.eus webgunean. Helburua, euskarearen erabilpena sustatzea da, eta hizkuntzen zein aniztasunaren jasagarritasuna eta hizkuntza-ekologiaren kontzeptua ezetuten emotea.

Euskararen Ginkana zezeilaren 3an hasi eta martiaren 3ra arte luzatuko da. Lau proba online egongo dira; hau da, astero proba bat egin beharko dabe parte-hartzaileak. Puntu gehien dituen lau taldeak finala jokatuko dabe martiaren 20an Donostian. Finalistak sari bana eroango dabe. Sari potoloena 3.000 eurokoa, euske-

rearen alde egin gura dan asmoa gauzatzeko izango da; mendi urtekerat bat Euskaltegiko lagunak edo euskarearen egun bat herrian antolatuteko, berbarako.

Parte-hartzaileak

Lagun kuadrillak, Berbalagun taldeak, guraso eta ikasle taldeak, jai batzordeak, enpresak, kirol taldeak... 16 urte baino gehiagoko 4-6 lagunek osotutako taldeak hartu lekie parte. Taldea osotu, www.euskararenginkana.eus webgunean sartu eta galdetegia bete behar da. Talde bakoitzak bideo labur bat grabatu behar dau taldearen eta sariagaz babestu gura dan proiektuaren aurkezpen txiki bat eginaz.

Ekoguneak antolatuten dau Euskararen Ginkana, eta Euskaltzaleen Topaguneak, koordinazio lanak egiten ditu.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Enpresa txikientzako dirulaguntzak eskatu daitezke

Erredakzioa

Arratia-Nerbioiko Landa Gara-penerako Alkartek lagunduko deutse eskatzaileak, enplegua sortu eta enpresak garatuteko Eusko Jaurlaritzako Erein eta Leader programari jagokiezan dirulaguntzak tramitetan. Ekintzailetzarako, enpresak sortu, handitu eta modernizetako, besteren kontura kontratatuko eta udallerrien azpiegiturak eta oinarriko zerbitzuak egin eta barritatuteko dira dirulaguntzok. Erein programakoak urtailaren 31ra arte eskatu daitezke eta Leader programakoak zezeilaren 28ra arte.

Aurten nobedade moduan, Leader programeak etxebizitzarako be emongo ditu dirulaguntzak. Helburua, beste eremu batzuetatik etorritako etorkizune-

ko herritarrei etxebizitza bat eskuratzen lagundutea da. Leader dirulaguntzak Arantzazu, Artea, Bedia, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberiokoak eskatu lekiez. Erein programakoak barriz, Areatza, Igorre eta Lemoakoak.



Irune Costumeroren alabearen zaintza aitari emon deutso epaileak

Prisazko kautela-neurrien epaia emon dau 1/2021 urtailaren 4ko autoak.

Erredakzioa

Bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak umearen behin-behineko zaintzari ixtea, zaintza aitari emotea eta amaren bisita-araubidea zabaltzea ebazten dau Bilboko Familia Epaitegiak. Holan, astegoiari birik behin umea amagaz egongo da barikutik domeka iluntzera arte; opor erdiak be amagaz eta

aste barruko bisitak mantenduko dira.

Amarengandik bananduta egoteak umeari egiten deustan kaltea eteteke, zaintza partekatua ezartzen eban 2015eko sententzia irmoa berrezartzea eskatu eban Irune Costumerok. Baina autoak aitari emon deutso zaintza. Horretarako epaileak kontuan hartu dau fiskaltzaren

txosten psikosoziala. Bertan esaten da umea "oso ondo egokitu" dala aitaren ingurura, modu positiboan ikusten dauela eta umearen garapena be ona dala; eta garagarrean umeak lagunai esan eutsena, bere egoera gogorra azaltzeko, gertakari puntual moduan hartzean dau. Orduan umeak, "aitak bahitu nau eta ez dau gura ni amagaz egotea" esan eban beste gauza batzuen artean. Forensearen txostenean be, "aitarenganako berbazko eta proiektinozko errefusak bere horretan" jarraituten dauela esan

arren, umea aitagaz ondo dagoala ondorioztatzen dau autoak. Hori dala-eta, errekursoa ipiniko dau Costumerok.

Bideoak

"Irune Costumero naz" hizkuntza desbardinetan aldarria eginaz,

ehundaka persona agertzen diran bideoa ikusi daiteke Youtuben. Alkartasun mezuak ailegetan segiduten dabela eta bigarren bideo bat egiteari ekin deutso Costumerok. Euskal kulturako izen ezagunak be agertzen dira bigarren bideo honetan.

Bideoetako partaideak, igorretarrari alkartasuna adierazoteaz gainera, justizia eskatzen dabe; Guraso Alienazino Sindrome faltsua andra eta umeen kontrako indarkeria instituzionala dalako eta ezin dalako onartu indarkeria horretan oinarritutako ezelango esku-hartzerik.

BFAko Haur Zerbitzuko karguak eta langile bat epaiketa penalaren zain dagoz Probintzia Auzitegiak delitu zantzuak ikusi ebazalako Costumerori alabea kendu eutsien esku-hartzean. Epaiketa honetarako datarik ez dago oindino.



ARRATIA

Elektrizidade eta sukaldaritza ikastaroak

Urtailean bere programazinoari ekin deutso Ilgoran Andren Jabekuntza Eskoleak.

Erredakzioa

Aurreko hamabostaldian hasitako *iVa por ellas!* ikastaroaz gainera, beste ikastaro bi dira hastekoak; bata, etxean elektrizidadeko konponketak egiten ikasteko eta bestea, sukaldaritza begetariano, ekologiko eta osasungarriaren gainekoa.

Auri Vallejo Sanz-ek emongo dau elektrizidade ikastaroa. "Elektrizidadeak zelan funtzionetan dauan ulertu ostean, mundu barri bat zabaldu jatan, eta mundu horretan autosufizientea naz" azaldu dau trebatzaileak. Ikastaro honen bitartez partaideak be arlo horretako konponketak egiteko kapaz izatea bilatzen da. Urtailearen 22, 23 eta 24an izango da Lemoan. Barikuan, hilak 22, 18:00etatik 20:00etara izango da tailerra eta zapatu eta domekan 10:00etatik 13:00etara.

Sukaldaritza begetarianoko ikastaroak zati bi izango ditu. Lehenengoa, hilaren 25ean hasi eta zezeilaren 22ra arte izango da hamabostero eta bigarren zatia martiaren 15etik maiatzaren 10era, hau be hamabostero,

18:00etatik 20:30era, Arantza-zuko sukaldean. Marta Marimon izango da trebatzailea eta ikastaroan, ikuspegi feministatik, elikadura-burujabetza landu gura da, kapitalismo patriarkalaren elikadura globalizau eta industrializatuaren alternatibak sortu ahal izateko.

Omentzeko ikastaroa martxan

Hareen omenez izeneko ikastaroaren bigarren eta hirugarren saioak izango dira Zeanuriko Kultur Etxean 17:45etik 19:45era. Ahalduntze prozesuetan argia eta gida izan diran andrazko anoniemoak ezetu, aitortu eta omentzeko ditue partaideak.



Karmengo Ama Ikastetxea

ETORRI HAZI
ETA GUREKIN

pertsonagintzan
Hurbiltasunez...
Konfidantzez...

MATRIKULAZIOA URTARRILAREN 18TIK 29RA ARTE
Eskatu eiztu alkarrizketa pertsonalizatua

946 730 935
cmtidazkaritza@karmengoama.eus
www.karmengoama.eus

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Gelder 666 58 20 06

Pozuetu poligonoa, 10 IEMOA • beerredakzioak@gmail.com

OEE

Erroldatzen laguntzetik harago, oinarrizko eskubideak bermatu eta bizitza ona bilatzen dauan komunidadade izatera

Giza Eskubideak beteteak miloeka bizitza ez galtzea ekarriko leuke. Oinarrizko Eskubideen Kartak 13. artikuluan mundutik transitoak libreza izan behar dauala dino, baina atzerritarren gaineko Europako legediak mugak zarratuten ditu eta jentetza Mediterraneoan hiltera kondenau. Muga hilgarri hori pasauta heltzean diranak be, bizimodua aterateko oztupoak oztupoen gainean ipinten deutseezan arau administratiboak topetan ditue. Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) horrerri aurre egin guran sortu zan, eta Arratian, 2016ko aprilean egin eban lehenengo batzar orokorra.

Erredakzinoa

Harrezkerotzik, hainbat proiektu atera ditu aurrera OEEk Arratian, eta familia asko kale gorrian geratzea saihestu egin dau beste herrialde batzuetatik etorritakoai bizitza duina lortzeako bidean lagunduz. Oinarrizko eskubideak bermatzeko askotan ilegalidade, alegalidade edo desobedienciaztiatik pasetan dan praktika politikoan jardunda, komunidadade bat eratuten dabiz, Giza Eskubideen alde eta bizitza on eta sinplean oinarritutako komunidadade bat, hain zuzen be.

Igorreko Kultur Etxean egin zan lehennengo batzar haretan ikusi zan Arratiako gizarte ez egoala prest besoak kurutzatuta hainbeste bizitza galtzea dakarren egoera hori onartzeko. "Hasikeratik oso espazio anitza izan zan. Basakeria horrerri erantzuna emoteko gogoa egoan leku askotan. Sano jente diferentea hasi ginan alkarregaz beharrean". Gainera, eta batez be Harrera proiektuak jagokienean, Arratiako gizarte osoa asko inpliketan dala dinoe OEEkoak. "Arratian jente asko dago lagunduten. Alkartasun eta gaiagazko sensibilitate handia dagoz. Herri oso bat dago harrera egiten" dinoe.

Harrera egiten

Euren herrialdea itxi eta familiak amets pilo bategaz etorten dira, eta hemengo errealidadeagaz topo egitean, amets horreek zapuztu egiten dira. Etorritakoai babesa emoteko sortu ziran Harrera taldeak; instituzinoak euren lana egiten ez dabela salatuteko eta lan hori egiteko, hain zuzen be. "Burrukan egingo dogu persona horreek duintasuna lortzeako bidean lagunduteko. Amets zapuztu horreetatik urtetea prozesu luzea da, gogorra da, duela bat pasau behar dabe eta hemen

oztopoak baino ez dabez topetan. Erroldarako laguntza daukie Harrera talde bat dagoalako hori burrukatzen. Bakardadean datarren personeak oztupoak baino ez ditu topetan. Irregularitasun bat. Atzerritar legeak abandonau egiten ditu" azaldu deusie BEGITURI OEEkoak. Horregaitik, Harrera taldekoak, duintasunerako behar diranak lortzean lagunduten deutsee: etxea, higienerako produktuak eta jatekoa, batez be. Tramiteak egiten be lagunduten deutsee, umeak eskolaratzeko, Osakidetza txartela eskuratzeko, eta abar. Edozertarako, lehenengotik erroldatuta egon behar da eta horixe izaten da lehenengo pausua.

Harrera proiektuakaz burubelari oin dala urte bi hasi ziran. Harrera taldeak egin eta udalakaz hasi ziran batzean jakiteko udalerrri bakotxean ze baliabide ebezan egoerari erantzuteko. Artean, Diman, Lemoan eta Zeanurin Harrera taldeak dagoz.

Baliabideak desbardinak dira herri bakotxean. Lemoan berbarako, etxebizitza batzuk daukiez "bloke bat daukagu, etxe okupatu bat. Hutsik egoazan etxe horreek eta ebatzi zan, ezin zala jentea kalean egon eta etxeak hutsik itxi. Hasikeran familia bi sartu ziran, gero etorri zan beste familia bat eta gero mutiko bi. Beste familia bat be badago etxe bat alokairuan hartu dauana".

Diman, momentu honetan, hiru familia dagoz; 11 persona; euretako 6, umeak dira. Udalak ortu bat itxi deutse. Artean, 3 familia dagoz, 15 persona; eta Zeanurin familia bi alokatutako pisu baten.

Hasikerako oztupoak gaindituta, helburua da familia eta persona horreek independente izatea, ez eukitea ezelango dependentsiarik ez OEEgaz, ez estaduagaz, ez beste edozein erakundegaz.



Basoa etxea Artean.

Errolda eskubidea

Lehen, euren herrialdea itxita, gizonak bakarrik etorten ziran, baina momentu baten perfil hori aldatu zan eta oin familiak etorten dira. Askotan, etorri barritan, ez daukie baliabiderik etxebizitza bat izateko, ezta lan egiteko be, eta kale gorrian geratzen dira. Eta momentu horretan umeak kentzeako tramiteak hasten dira. Harrera taldeak egoera hori saihesteko egiten dabe behar. Kale egoeran dagoan familia bateri teiltua, janaria eta gitxieneko baliabideak eskuratzeko lagunduteko. Eta gero "irregularitasunetik" urteteko bidea egiten hasten da.

Lehenengo pausua erroldatzea da, ze errolda danerako behar da: Osakidetza txartelerako, laguntzak eskatzeko... Udal askok ez dabe bermatzen errolda eskubidea. "Udal batzuk ez dabe legeak esaten dauana apliketan. Legeak aurreikusten dau, zubi baten pean bizi bazara be, erroldarako eskubidea daukazula, edo behintzat errolda sozial bat emon deizuen, gutunak bertara ailegetako. Udalerri askotan hori ez da errespetetan

rabide bikoa izan arren, etorten dan jentea, gehienetan, "bizirik irauteko" dator eta ez helburu politiko bategaz.

Horregaitik, 2019aren amaierantza amets bat sortu zan. "Hasi ginan pentsetan, badagoala beste alde bat, munduan defensoreak dagozala harrera espazioak behar dabezanak. Eta harrera espazio horreek alkartrukerako izan behar dirala. Orduan Euskal Herriko hainbatek pentsau genduan, zergaitik ez dogu egiten defensoreentzako etxe bat? Baina ez ohikoa, ez instituzinoak edo hainbat alkartek kudeatzen dituen modukoa, benetan komunidadadea eregiten dauan etxea baino, eta izango dana esperientzia sozial bat, praktika politiko sozial bat". Holan, ametsa gauzateko, modu kolektiboan Bildosola auzoan dagoan etxe bat erosi eta Basoa izena emon eutseen etxea eta proiektuari.

Abenduaren 1ean, eskuratu ebezan etxeok giltzak. Proiektua oindino guztiz definitu barik dago eta asanbladak egiten ditue idearioa ondo definituteko. Argi dagoana da defendatzaileen etxea dala eta komunidadade bat sortu gura dabela, "ikerketarako, hausnartzeko, aktibismo barrien inguruan alkar formatako eta esperientziak trukatzeko".

Gainera, Arratiako mobimentu sozialen topaleku izan daitela be gura dabe bultzatzaileak. Ezin dalako berba egin aktibismoaz Arratian, mobimentu sozialak edo herrigintzagaz kontuan hartu barik. "Arratiako mobimentu barik ez dago Basorik. Basoa izena ebatzi zan basoan danak diralako inportanteak, inurri txikienetik arbolik handienera" eta baso hori egiteko, herri mobimentuak beharrezkoak dira. Proiektuaren gaineko informazio gehiagorako info@basabide.org helbidera idatzi daiteke.

Basoa, giza eskubideen defendatzaileen etxea

Errefujiaduen aldeko OEE plataformakoak egiten daben lana, lan politikoa da. Giza Eskubideetan eta bizitza duinean oinarritutako ideologia bat dauka atzean eta militantziaren bidez gauzatzen da. Errefujiaduakazko lana no-

Arratiako OEEK 5 urte

Errefujiaduen gaiaren gainean jentea sensibilizetako; autofinanzietan dan taldea danez, dirua biltzeako edo zuzenean errefujiaduak laguntasuna emoteko gauza asko egin ditu Arratiako OEEK 2016ko apirlean sortu zantetik.

Hemen batzuk:

2016

- Maiatzean Arratian karabana bat antolatu zan, Arratiako martxea. Errefujiaduen gaiaren gaineko sensibilizazioa eta salaketea egiteko.
- Bagilean udaletan mozinoak sartu ebezan.
- Abenduan, Mikel Zuluaga eta Begoña Huarte atxilotu ebezan Greziatik etozela, eta mobilizazioak antolatu ziran.

2017

- Apirlean, Euskal Herriko OEEK ekitaldia antolatu eban Gernikan eta Arratiak be hartu eban parte. Arratiako herrietatik Gernikaraino oinezko mar-
txea egin zan.
- Urtean zehar batzar ugari egin ziran instituzinoakaz: udalakaz eta AUM-
gaz, harrera egiteko baliabide bila.
- Abuztuan Abigail jaio zan, hemen jaiotako lehenengo errefujiaduen ala-

bea. Abigail oin Areatzan bizi da.

- Areatzan, azoka bat egin zan, Greziara, errefujiaduentzako jatekoak pres-
tatzen ebezan Zaporeak ekimenari dirua bialtzeko.

2018

- Zierbenan janariak emoten hasi ziran. Albaniarrak batez be, egoten zi-
ran han portu ondoan barkuetara sartzeako. Bizkaiko talde asko janaria
eroaten hasi zan, Arratiak be bai. 2020ko konfinamentura arte iraun eban
honek.
- Udan, Mugak Zabalduz karabana parte hartu eban Arratiak.
- Arratiako OEEK, Bizkaigaz lanean ekimen diferenteak egin ditu sensibi-
lizazio eta salaketarako.
- Zemendian, Artean migrazino politikoa, gerra eta pobrezia aurre egiteko
ekimen europarra egin zan. Europa mailan faxismoaren igoerari eran-
tzuna emoteko moduren bila.

2019

- Maiatzaren 5ean, Errefujiadu eta migratzaileen aldeko Durangoko Be-
sarkadan hartu eban parte Arratiako OEEK.

2020

- 2020an, Harrera proiektuak izan dira nagusi.
- Basoa proiektua abiatu da.

Lekukotasunak

Lemoan eta Artean bizi diran neska gazte bik, biak Marokotik etorritakoak, euren testigantzea emon deutsie BEGITURI. Sabah-k 19 urte ditu, gurasoak eta 5 neba-arrebaz bizi da Lemoan, errentan hartutako etxe baten. Ikasten dago. Ayak barriz, 21 urte ditu eta senarra eta semeagaz bizi da Artean.

Sabah

Gu Bilbora ailegau ginan 2019an. Kalean geratu ginan eta Harrerak hartu ginduzan. Frantziatik etorri ginan, Italian eta beste herrialde askotan egon ostean. Libiatik pateran etorri ginan. Marokoko jatorria daukagu.



Harrerak hona ekarri ginduzan, Arteara eta 3 hilabeteren ostean Lemoara joan ginan alokairuako etxe baten bizitera. Aita lanean egoan orduan. Zortzi persona gara: gurasoak eta sei seme-alaba. Bueno zazpi neba-arreba gara baina bat ez da gugaz bizi. Ikasten gagoz danok. Zaharrenak 20 ditu, nik 19, beste batek 14, hurrengoak 6, eta txikiak 3 eta

2 urte. Amak 40 urte ditu eta aitak 50. Aitak ez dau lanik egiten oin. Ni Durangon nabil ikasten, neba zaharrena Bilbon, eta besteak, Lemoan.

COVID-19ak dana gatxago egin eban, baina oin behintzat urten gaitkez eta ikasi daikegu. Etxean ikastea gata zan eta.

Aya

21 urte daukadaz eta liluratuta naukan seme bat. Iparreko Marokotik nator, Tetuanetik. 17 urte-gaz atera nintzan etxetik. Ceutan, Adin Txikikoen Zentroan egon nintzan urtebetez. Papelak emon eustezan. Senarra han ezetu neban. Bera etorri zan hona lehenengotik, eta gero ni. Bilbon 4 hilabete geratu ginan, 2017an, eta gero abenduan Bartzelonara joan ginan. Han urtebete egon ginan.

Bakarrik itzuli nintzan Euskal Herrira, 2018ko abenduan, eta 2019an, Claret Enea aterpetxera sartu nintzan. Aterpetxearen ondoren, egoitza batera.

Maiatzetik urrietara geratu nintzan han eta Mikel eta Olatz ezetu nebazan eta Arteara etorri nintzan. Haurdun nengoan eta etxe baten geratu nintzan erditu baino aste-bete lehenagora arte. Gero beste etxe baten egon nintzan eta semea jaio zan.

Oin Artean bizi naz. Hemen ikasi dot hau danon artean egiten dala eta hona datozenak be esperientziak konpartidu eta emon be emon behar dabela. Hemen erakutsi deuste zelau tratatu jentegaz eta maitasuna partekatu. Jasoten dozuna partekatu egin behar dalako. Ondo zaindu nabe eta oin bigarren familia bat daukat hemen.

Etxeko Janaria Zure Etxean

Jandoniz Egoitzaren Zerbitzu Berria

Betiko janarian zure extea
Etxera eramateko janariaren zerbitzuak dieta orekatu eta osasuntsua eramaten laguntzen die gure nagusiei, etxean bertan. Karta-zerbitzua da; bazkaria, afaria edo biak eska daitezke astean nahi duzun beste egunetan, inolako konpromezurik gabe.

Neurrira egindako dietak
Askotariko menuak ditugu, testura ezberdinekin eta zure beharrezanetara egokitutako dietak.

Banatu baino askoz gehiago
Banatzaileak astean hiru aldiz bisita egiten dizunean iraingitze datak begiratuko ditu. Termoseilatatu bidez ibotako ontzietan banatzen da janaria, kalitate osoa bermatuz.

SARRERA
PLATER NAGUSIA
OSAGARRIA
POSTREA
OGIA
8,95€
BEZ-a barne

1 BANAKETA
Eskaria aumeikusitako ordutegian helduko da

2 BANATZAILE JATORRA
Banatzaileak aurretik utzitako janaria beraztertu eta eskari berria utziko dizu

3 INFORMAZIOA
Ontziak nutrizio informazioarekin eta iraingitze datarekin etiketatuta daude

4 KONTSERBAZIOA
Ontziak hozkailuan gorde behar dira kontsumo unera arte

5 PRESTAKETA
Plastikoa zulatu eta berotujanaria 3 minutuz mikrohuin labean

3 MINUTUAN PREST

GOGORATU!!! Behin ontzia irekita, 24 orduko epean kontsumitu

JANDONIZ NAGUSIENTZAKO ETXEA
JANDONIZ, 2 KALEA
48390 BEDIA
INFO@RESIDENCIAPARAMAYORESJANDONIZ.ES

946313130

MENDIA

Manasluko Oinarrizko Kanpalekuan dagoz Txikon eta bere espedizinokideak

Erredakzioa

Neguan Manasluko tontorra (8.156 m) egiteko asmoa daukan Alex Txikonen espedizinoa Oinarrizko Kanpalekuan dago. Hau, 4.900 metroko altitudetan dago eta bertan mendizaleak goi mendiko baldintzetara egokitzen joaten dira. Simone Moro, Iñaki Alvarez eta Cheppal eta Kalden Pura sherpak dira Txikonen espedizinokideak erronka honetan.

"Sensazino onak" dituala dino lemoaztarrak bere Facebook-ean. Zortzimilakoetan, metereologiak ebazten dau askotan tontorra egiteko aukerarik egongo dan ala ez. Neguan, edur asko dagoanean, sano arriskutsua da eta igotea. Momentuz, eguraldi ona topau dabe mendizaleak eta edur larregi ez. "Gaur be, eguzki ederra. Guzurre dirudi urtailaren 11 iza-tea. Zorte handia daukagu, egia esan" inoan Txikonek.

Oinarrizko kanpalekuan, lehe-

nengo egunetan, eguzkia izan da goizeko 07:00etatik 15:00etara eta 10 graduko tenperatura izan dabe. Gauean barriz, -15 gradu-

tara heldu da.

Lehen Kanpalekua 5.900 metroko altitudetan dago montautu. Hara materiala eroaten hasi dira.



FUTBOLA

Partidurik irabazi barik



Erredakzioa

Arratia andrazkoen A taldeak partidu bi jokatu ditu urtailako lehen zatian.

Urtailaren 9an Añorgaren kontra jokatu eban Arratiak Igorreko Urbietia zelaian eta 0-2 galdu eban partidua. Urtailaren 16an ostera, Tolosaren kontra jokatu eban eta 2-1 galdu eban Arratiak.

Igorrekoak oindino ez dabe lortu partidurik irabazterik ligea hasi zanetik.

Datorren partidua, urtailaren atzen astegoienean jokatuko dau Arratiak Bizkerre taldearen kontra etxetik kanpo.

Arratia, bederatzi jardunaldi jokatu eta gero, sailkapeneko atzen postuan dago puntu bakarragaz.



ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten"



0-18 urtera arte

* Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikoak.

* Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre eta Zornotza.

* Matrikula urte osoan zabalik.



PELOTEA

Ondo hasi dira



Erredakzioa

Partidu guztiak irabazten hasi dabe urtea Oier Etxebarria eta Danel Elezkano Arratiako pelotariak. Igorretarrak, Salaberria bikotekideagaz batera hiru partiduko jokatu ditu. Danel Elezkanok, Zabaletagaz batera, partiduko bi jokatu ditu.

Amorebieta-Zornotzan irabazi eban urtailaren 15ean Salaberriak eta Oier Etxebarriak, Elordi eta Garmendiaren kontrako partidua, 17-22. Aurreko partidua biak be irabazi ebezan. Bata, urtailaren 10ean jokatu eban Bilbon, Dario eta Erostarberen kontra, 6-22ko emaitzagaz. Urteko lehen partidua, urtailaren 2an jokatu eban Egiguren V. eta Ruizen kontra, 8-22 irabaziz.

Danel Elezkanok be irabazi ditu jokatuak partidua biak. Elezkano II. eta Zabaletaren lehenengo partidua urtailaren 4an izan zan, Ezkurdia eta Ladis Galarzaren kontra. 3-22 irabazi eban. Bigarren, Jaka eta Martija izan ebezan aurkari. 19-22 irabazi eban Elezkanok eta Zabaletak.

Emakumeem Esku-pilotako III. Bizkaia Txapelketa

Arratiako pelotari bik hartzean dabe parte Bilboko Bizkaia frontoian jokatzeko dan txapelketa honetan; Dimako Amaya Aldayk eta TxumuluXueta klubeko Ainhoa Ruiz de Infantek, hain zuzen be.

Ez da ondo hasi Amaia Alday. Lehenengo partidua galdu egin eban Aldayk eta Orbegozok, Garai eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra, 22-18. Hurrengo partidua hilaren 22an jokatu dabe Miren Larrate eta Gentzane Aldayren kontra.

Ainhoa Ruiz de Infantek eta Olatz Ruiz de Larramendik osotutako bikoteak barriz, 9-22 irabazi eban lera Agirre eta Arrate Bergareren kontra jokatuak partidua.

MENDIA

Garbiñe Uriarte: "Bidean disfrutatzen dozun da garrantzitsua"

Artaunen jaio zan eta bertan bizi da Garbiñe Uriarte. Mendia da bere leku naturala.

Txikitatik izan dau zaletasuna eta gaztetan hasi zan oso gustukoak dituan zeharkaldiak egiten, baita Pirinio eta Alpeetako mendietako tontorrek zapaltzen. Ganzabal Mendi Taldeko kidea da eta Marimendi, 40 urtetik gorako andra euskaldunen mendi taldeko kidea be izan da. Esperientzia handiko mendizalea da Uriarte.

Erredakzioa

Atzen urteotan, jentearen artean mendizaleasuna asko zabaldu bada be, erkidego eta lurralde konfinamentuak eta beste aisialdi ekintzen murrizketak dirala-eta, normalean mendira joaten ez zan jentea mendira joaten animau da. Uriartek, berak bizi izandakoak eta naturaz disfrutatuko kontuan izan beharrekoak azaldu deusaz BEGITUARI.

Zaletasuna txikitatik jatorritu, ezta?

Bai. Ni Artaunen jaioa naz eta zaletasuna aitagaz hartu genduan. Gu zapi neba-arreba gara eta aitak estorbutik kenteako-edo, Belatikietara mezara, zizak topetan edo ahuntzak zaintzen eroaten ginduzan. Holan ikasi genduan mendian ibiltzen. Mendian eta hatxetan. Hortik aurrera beti euki dogu zaletasuna mendira joateko. Eta gero nagusitzean kuadrilleagaz be bai. Mont Blanc-era be hogeitertu edo joan nintzan. 18 urte nebazanetik aurrera Pirinioetara joaten ginan lagunak urtero. Hori ez zan ohikoa sasoi haretan. Mendiko materiala erabiltzen be ikasi genduan.

Aukerea euki dodanean, beti joan naz mendira. Bilbon bizi izan nintzan urte asko baina ez neban galdu Arratiagaz loturea, eta Ganzabal Mendi Taldean egon naz beti. Horrek aukerea emon deusta gehiago zabaltzeko eta ezuteteko, urtenaldi luzeagoak egiteko. Eta zeharkaldiak.

Gero oin dala 14 urte Marimendi sortu zan eta jente bila ibili ziran. Eta hor be sartu nintzan buru-belarri eta egia esan oso esperientzia polita izan da. Taldeak ez dau jarraitzen, oin urte bi edo itxi genduan taldea. Urteak aurrera doaz, batek 78 urte daukaz eta ikusten genduan danon neurriko mendia egitea gatxa zala. Alkartzen gara gauza batzuk egiteko, baina ez talde moduan. Hainbat lekutatik ibili gara eta niretzat oso aberasgarria izan da.

Zeintzuk dira inoz ahaztuko ez dozuzan mendiak?

Niretzako mendiak... danak dira ederrak. Askok gustetan jataz ber-

takoak; Leungana, esate baterako. Anboto be bai. Horrek dira niretzat mendirik politenak. Mendirik altuenak Marimendigaz egin dodaz. Peruko Mendikate Zurian (Cordillera Blanca) Pisko (5.752 m), Urus (5.420 m) eta Ishinka (5.530 m), eta Kaukason, Elbrus (5.642 m).

Alpeetan be, mendi asko egin doguz: Mont Blanc (4.809 m), Piramide Vincent (4.215 m) eta Burnaby tontorra (Bishorn) (4.135 m).

Ze garrantzia dauka zuretzat tontorra zapaltzeko?

Elbrus batera edo bazoaz badauka garrantzia, helburua ipintzen dozulako, baina hemengo mendietan ibiltzeko ez dauka garrantziarik. Herenegun, Gorbeira joan ginan eta bidea zarratuta egoan eta esan genduan Arrabaraino heltzean bagara Arrabaraino. Heldu ginan tontorrera eta pozik, ze kurutzera oso polito egon da edurragaz.

Niri zeharkaldiak egitea asko gustetan jata. Bidean disfrutatzen dozun eta ikusten dozun, paisajea, da garrantzitsua. Gaur bertan Orixolera joateko ginan baina azkenean Leunganara joan gara eta piloa disfrutatu dogu Urkiola, Anboto, Saibi... ikusten. Ahaztu egin gara nora goazen be, ze mendian disfrutatzen da piloa.

Mendian ibiltzen hasteko zer da egokiena: mendi talde baten gotea ala norberaren

neurriko urtenaldiak egitea lagunak?

Nik uste dot mendian hasteko mendi taldeak dirala egokienak, ze batzuetan bakarrik joateko bildurra izaten da: galtzeako bildurra, esate baterako. Mendi taldeetan neurri guztietako urtekerak dagoz. Hasieran lagunduten dabela uste dot, nahiz eta nire kasuan ez dan holan izan. Nik lagunartean hartu dot esperientzia eta gero sartu naz mendi taldera. Urten aurretik ibilbidea, behar dozun materiala eta abar azaltzen dabe, eta galtzeako bildur barik zoaz.

Oin askoz jente gehiago ibiltzen da mendian, ezta?

Bai. COVIDaren historia honegaz jente asko ikusten da. Lehen be hasita egoan, baina oin askoz gehiago. Lehengo egunean, batek kontau eustan Urkiolamendira joan zala eta han galdetzen hasi zala Zabaldirako bidea eta batek: "ez ni ez naz hemengo" eta beste batek "ni lehenengoz etorri naz" eta beste batek "idearik be ez"... Hori oin arte ez da egon.

Nik pentsetan dot mendira joateko jakin behar dozula zein menditara zoazen, zein bidetatik, zer behar dozun, ze eguraldi egingo dauan... Eguraldia egun batetik bestera aldatzen bada, mendia be aldatu behar izaten da askotan, edo ibilbidea. Baina jen-

te batek pentsetan dau mendira doala eta badoa, baina mendia mendia da. Hori be kontuan euki behar da.

Nik pentsetan dot hau mendian eta kirol guztietan gertatu dala, boom moduko bat. Beste gauza asko egin ezin diranez, jentea kanpoan egon ahal izateko, maskara kenduta, eta haizea hartu ahal izateko joaten da. Osasungarria da gainera. Eta nik pentsetan dot jente asko konturatu egin dala horretaz.

Zeintzuk dira kontuan euki behar diran gauzak mendira joateko?

Lehenengo begiratu behar dozun nora zoazen edo bidean zer topau ahal dozun; distantziak eta abar. Baina nahiz eta eguraldi onagaz urten, beti eroan behar dozun motxilea prestatuta eurirako, hotzerako eta beti janaria sobran. Ura be bai, jakina! ze ez dakizu bidean zer topau ahal dozun. Txanoa, eskunarruak eta betaurrekoak be eroan behar dira beti eta eguzkia bada, eguzkitarako kremea.

Mendian ibiltzen danak sorpresa asko izaten dauz eta hori kontuan izan behar da.

Egunotan mendi batzuk jentek gainezka egon dira, edurragaz disfrutatuko. Base-eritar batzuk keju egin dira euren portaera dala eta.

Bueno, batzuetan igoi jentea zoratu egiten da. Nire kasua ez da, ze ni mendian bizi nazanez...

Bai, baina apur bat ulertzekoa be bada. Hemen edurrik ez dau egiten eta edurra dagoanean jentea edurretara doa. Normala da. Gainera umeai erakutsi egin behar jakie zer dan edurra. Uler-tzen dodaz baseritarren keju, baina ulertzen dot be bai jentearen edurretara joan beharra. Nik animau gurako neuke jentea mendira joaten baina beti errespetuz. Jente askok eroaten dauz plastikoak edurretan olgetako, baina batzuk bertan itxi dabez plastikook. Disfrutau bai, baina ingurua kaltetu barik.



ANTZERKIA

Matriuska umorezko antzezlana Areatzan**Erredakzioa**

Urtilaren 30ean, 19:00etan, Iraia Eliasek eta Amancay Gaztañagak *Matriuska* antzezlana antzeztuko dabe Areatzako komentuan Areatza urtaroka programearen barruan. 2020ko Poltsiko Antzerki Sorkuntza proiektuko irabazlea izan da Eliasek eta Gaztañagak alkarlanean idatzi, antzeztu eta zuzentzen daben lan hau.

Matriuska bata bestearen ba-

rruan dagozan kopin moltsoa da, eta antzezlana honetan andrazkoz jositako andrazkoa agertzen jaku. Izan be, norberarengan aurretik bizi eta izandako andren zantzuak bilatzeko hausnarketea bultzatzen dau, umorez. Antzezlana zientzialari biren ikerketea kontetan dau eta honek euren andrazko gorputzagaz topo egitera bultzatuko ditu. Izena Areatza urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon ahal da hilaren 27ra arte.



MUSIKEA

Alos Quartet hari laukotea Igorren**Erredakzioa**

Urtilaren 30ean, 19:00etan, izango da kontzertua Igorrenko Lasarte Aretan. Taldeak 20 urte bete ebazan 2020an.

Xabier Zeberio (nyckleharpa eta bibolina), Francisco Herreok (bibolina), Lorena Nuñezek (biola) eta Ivan Carmonak (txeloa) osotuten dabe taldea. Formazino klasikoa daukie, eta mota honetako musikea gustuko dabe,

baina ez ditue baztertzen beste-lakoak be. Taldeak berezko sonoridade bat dauka: "ondo saretua, delikadua, gozoa, originala eta indartsua". Mundu eta erregistro desbardinaren arteko fusino natural eta originala eskaintzen dau. Alos Quartetek bere ibilbide luzean zehar emonaldi eta grabaketa ugari egin ditu. Atzen diskoa, 20 urte zuzenean, bosgarrena da. Bertan jasoten diran 18 piezetako batzuk joko ditue Igorren.



BERTSOLARITZEA

Zeanuriko bertso saioa hamazazpigarrenez, eten barik

Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatuta, urtailaren 24an, puntako bertsolariai entzuteko aukerea egongo da.

Erredakzioa

Bertso saioaren hamazazpigarren edizino honetako kartela, Amets Arzallusek, Maialen Lujanbiok, Andoni Egañak, Aitor Mendiluzek eta Unai Iturriagak osotuten dabe. Gai jartzaile beharrak Eñaut Intxaurragak egingo ditu. Frontoian da hitzordua, arrastiko seiretan.

Urtero lez, bertsolaririk onenetakoi entzuteko aukerea egongo da Zeanurin. Izan be, Andoni Egañak, Amets Arzallusek eta Maialen Lujanbiok 1993tik hona jokaturako Bertsolari Txapelketa Nagusi guztiak irabazi dabez. Oingo Euskal Herriko txapeldu-na Maialen Lujanbiok, 2017 eta 2009koak; 2013koa Amets Arzallusek, eta 1993tik 2005a arteko lau txapelketak Andoni Egañak. Aitor Mendiluze eta Unai Iturriaga be hainbatetan izan dira Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalista.

Zeanuriko bertso saioan beterrano dira Unai Iturriaga eta Andoni Egaña; Maialen Lujanbio be egon zan igazko saioan.

Sarrerak aurrezdik be salgai

Urtailean izaten danez, 2020ko martitik aurrera izandako kultura etenaldiak ez eutsan eragin igaz

bertso saioari, eta aurten be, aforo murriztuagaz baina gozatu ahal izango dabe inguruko bertsozaleak hain gustuko daben saioa.

Sarrerak alde aurretik be erosi ahal izango dira 8 euroan udaletxean 11:00etatik 14:00etara, eta egunean bertan 17:00etan hasita frontoian salduko dira indarrean dagozan COVID-19aren neurriak ezarritako aforoa bete arte.

BERTSO SAIOA

Zeanuriko frontoian

Urtarrilaren	Arrastiko
24an	18:00retan

- Amets Arzallus
- Maialen Lujanbio
- Andoni Egaña
- Aitor Mendiluze
- Unai Iturriaga

MAHAI-INGURUA

Hamalau alkartek hartu eben parte Dimako kulturearen gaineko mahai-inguruan**Erredakzioa**

Txumuluxueta alkarteko 25. urteurreneko ekitaldiko mahai-inguruan, Dimako kulturearen argazki polita egin zala dinoe antolatzaileak. Ekitaldian alkartearen 25 urteko historiaren laburpen grafikoa egin eta herriko alkarte guztiak zabalik egoan mahai-ingurua egin zan gero. Guztira 46 lagun hurre-ratu ziran ekitaldira.

Herriko kulturearen gaineko hausnarketea egiteko mahai-inguruan 14 alkartek hartu eben parte eta antolatzaileak 3 talde-tan banandu ebazan. Lehenengo taldean 5 alkarte egon ziran: Dimako Eskolea, Eskolako Guraso Elkartea, Dimesten, Txumuluxueta Pelota Kluba eta Gaztebarri Dantza Taldea. Bigarren taldean, Kobaso Bolo Elkartea, Dima Harrera Herria, Dimako Abeltzainen

Elkartea, Zamakola Hirugarren Adineko alkarte eta Musika Taldeak. Eta azkenik, hirugarren taldean, Artaunen egoitza daukan Antzasti Museoa, Abizarie, Andraizea eta Txumuluxueta Kultur Elkartea. Partaideen eretxian, kultura da "benetan herri sostengua, zaindu eta babestu behar dana" eta etorkizunari begira kakoak dirala "ekitea" eta "alkarlana".

Ekitaldiaren balorazioa sano positiboa egin eben antolatzaileak. "Dimako kultura lokala aberasgarria da eta gaur ikusi dogun hau argazki ederra dala uste dogu" azaldu eben eta kultureagaz lotutako Arratiako erakunde, alkarte eta norbanakoai, kultura lokalaren inguruan Arratian hausnarketa kolektiboa egiteko erronea bota eutseen.

Personaia mitologikoak

Dimako kulturearen inguruko ekitaldi baten ezin zan bestela izan eta personaia mitologikoak ez ziran faltau ekitaldian: jentila, sorgina, Gizotso eta Basandere "armonia ederrean" izan ziran bertan.



JANTZEA

Jantza afrikar saioa Lemoan



Erredakzioa

Afrikako Kulturaren Mundu Egunaren harira Lemoako Udalak jantza afrikar saioa antolatu dau urtailaren 24rako, Quindnyren gidaritzapean. Kiroldegian izango da 10:30etik 13:00etara, 150 personako gehieneko aforoagaz. Izena hilaren 21era arte emon daiteke www.lemoa.net webgunean. Bertaratutakoak Afrikako herrialdeetako jantzetako oinarritzko pausuak ikasiko dabez, afrikar musikearen erritmoan.

Quindny-k, Afrikako Komunitate Baltzeko aktibistek Afro-session proiektua ipini eban martxan 2019an, fitness eta jantza jarduerak buztartuz.

Bilboko San Frantzisko auzoan Saharaz hegoaldeko jatorriko pertsonak sortutako mikroenpresa sozialen haztegia dan Koops34 ekimenaren parte da Afro-session.

LEHIAKETE

Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketako irabazleak emongo dira jakitera sari banaketa ekitaldian

Urtailaren 23an, 19:00etan, izango da ekitaldia Lemoako kiroldegian. Bertso trama erotikoa egongo da ostean; Uxue Alberdik eta Sustrai Colinak bertsoan jardungo dabe eta Arkaitz Estiballes izango da tramagilea.

Erredakzioa

Aforoa mugatua da, 150 personarentzako eta sari banaketa ekitaldia eta ikuskizuna ikusteko, izena hilaren 20ra arte emon daiteke www.lemoa.net webgunean. Zuriñe Yarririk gidatuko dau ekitaldia eta jostailu erotiko bi zozketatuko dira publikoaren artean.

Igor Estankona, Alvaro Rabelli eta Iratxe Retolazak osotutako epaimahaiak emon dau epaia, baina ez da publiko egingo sari banaketa ekitaldia izan arte. Ha-ta guzti be, kalidade handiko lanak dirala jakin dau BEGITUK. Izan be, Zertu Kultur Elkarreak antolatuten dauan bigarren edizinoan izan arren, lehiaketek aurretik eukan izena eta idazle ezagunak hartzean dabe parte lehiaketan.

Uxue Alberdi eta Sustrai Colina

Bertsotan Uxue Alberdi eta Sustrai Colina egongo dira, puntako bertsolariak biak. Uxue Alberdi, bertsolaria izateaz gainera, idazlea be bada eta 2020an, euskerazko saiakeraren Euskadi Literatura Saria jaso eban *Kontrako*

eztarritik lanagaz. 2016an be jaso eban Euskadi Saria *Besarkada* lanagaz. *Aulki-jokoa* (2009, Elkar), *Euli-giro* (2013, Susa), *Jenisjoplin* (2017, Susa) eta *Dendaostekoak* (2020, Alberdania) dira bere lanik ezagunenak.

Bertsolaritzeari jagokonean, aitzatekoak dira, 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusian finalurrekora heldu izana eta feminismoaren ikuspegitik bertsolaritzearen inguruan egin dauan lana; tartean, Ainhoa Agirreazaldegigaz batera abiatutako Bertso Eskola Feminista.

Sustrai Colinak sari asko ditu bertsolaritza munduan, tartean Xilaba Bertsolari Xapelketako txapel bi. 2001etik finalista izan da Bertsolari Txapelketa Nagusietan, eta 2017koan, berbarako, hirugarren egin eban. Zuzenbidean lizentziaduna izan arren, kazetari lanetan jarduten dau eta 2016an, Rikardo Arregi Saria jaso eban. Bertso irakaslea be bada Colina.

Tramagile, Zeanurin bizi dan Arkaitz Estiballes bertsolaria ibiliko da. Beste txapel batzuen artean, Bizkaikoak be baditu sari banaketako ekitaldiko bertso tramagileak.

The poster is for an event on February 23rd at 19:00 in Lemoako kiroldegian. It features the logos of LEMOA UDALA, ARRATIAKO KALENTURAK, and zertu. The main text reads 'Ipuin Erotika Lehiaketa' and 'SARI BANAKETEA' (Zuriñe Yarririk aurkeztuta). Below that, it says 'Bertso trama erotikoa' and 'Arkaitz Estiballes tramagile Uxue Alberdi eta Sustrai Colina bertsoan'. There is a QR code and a section for 'IZEN-EMOTEA' with the website www.lemoa.net and the event details: 'urtailak 13-20 *2021/01/13 09:00etatik 2021/01/20 09:00etara'. A photo of three men is also included.

DUNBA

Euskerearen Eguna Lemoako ikastetxean

Izaro Barrio. DBH3 (Ikastetxeko Euskara Batzordearen izenean)

Aurtengo Euskerearen Eguna berezia izan da, Euskal Herri osoan eta baita gure ikastetxean be. Gure ikastetxean Ikasle Batzordeko kideok irakasle batzuen laguntzeagaz antolatu genduan egitaraua hauxe izan zan:

Lehenengo saioan eskola ordua izan genduan. Ondoren, 09:25-10:40 artean patiora urten ginan, igaz ez bezala, aurre ezin izan garanez maila desberdinetakoak alkartu, mailaka egin doguz jolasak. Hiru gunetan hiru jolas antolatu genduzan: harri-

orri-ar; zapitxoarena eta bali txinatarra. Jolas bakotxean 15 minutu inguru ibili ginan.

Ostean, 10:40etik 12:00ak arte talde bakotxa bere gelan geratu zan eta hiru ekintza desberdin egin genduzan: euskerearen inguruko *kahoot* jolasa, kanta bingoa eta marrazketa jolasa. Kanta bingoan lerroa egiten ebainai txupatxusa banandu jakien eta bingo egin ebenak biserea izan eben sarizat.

Jolas honeen ostean, ekitaldi txiki bat antolatu genduan. Berezia, publiko bakoa. Aurkezle eta hizlariak aretoan egon ginan eta publikoagaz bat egin genduan



bideo dei bidez. Bertan manifestua irakurri zan; LH6 eta DBH1 mailako bertsuak entzun genduzan; Pin Lehiaketako saridunai

sariak banandu jakiezan eta Harrotxuren kanta kantatu genduan danok.

Eguna ondo amaitzeko 10 ur-

teotan zehar ikastetxeko Euskera Egunak biltzean dituan bideoa ikusi genduan eta hunkigarria izan zan.



AGENDA

**URTAILAK 18
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

AREATZA

Negu osoan zehar geolokalizazio jarduerak. Aukeratu Gorbeia Parkeko zonalde bat, koordinatuak jarraitu eta saiatu proposatutako puntuak aurkitzen. Materiala emailen bidez edo Parketxera hurbilduz eskuratu daiteke.

Parketxeak antolatuta, Areatza-Urrekoatxa-Lamindao-Areatza ibilbidea. 11 km. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean.

ARRATIA

Areatzan eta Lemoan Berbalagun egitasmoan bidelaguna izateko izena emon 662 199 033 telefono zenbakian edo arratia_berba@aek.eus helbidean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, zezeilaren 14an egingo dan Alto Campoora eski urtekerara joateko izen emotea liburutegian. Ganguren Mendi Taldeak eta Bediako Udalak antolatuta.

IGORRE

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo liburu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

LEMOA

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturgunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

Hilaren 20ra arte, 23an izango dan Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketako sari banaketea eta bertso trama erotikorako izen emotea www.lemoa.net webgunean.

Hilaren 21era arte, 24an izango dan Afrodance & Moovafrika saiorako izen emotea www.lemoa.net webgunean.

Hilaren 24ra arte, 30ean izango dan sukaldaritza tailerrerako izen emotea www.lemoa.net webgunean.

ZEANURI

11:00etatik 14:00etara, hilaren 24ko bertso saiorako sarrerak salgai



Insumisinoaren aldeko mobimentuaren gaineko filma eta Lander Garro Igorren

Lander Garro zuzendutako *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* filma ikusi ahal izango da hilaren 22an, 18:30ean, Lasarte Aretoan. Zuzendaria bera egongo da Igorren filma proiektu ostean berbaldia emoteko.

Filmak derrigorrezko soldadiskearen kontra burrukan egin eben sei lagunen istorioa kontetan dau. Errazoi desbardinak ebezan insumisio izateko: bakezaletasuna, pentsakera anarkistea, abertzaletasuna edo sinismen erlijiosoak, baina seirak gurago izan eben kartzelan egon ejerzitoan baino: urte bi, lau hilabete eta egun bateko kondena ezarri eutseen. Dokumentala euren militantzari eskainitako memoria ariketea da.

udaletxean. Hilaren 22ra arte.

**URTAILAK 19
AREATZA**

Parketxeak antolatuta, Areatza-Urrekoatxa-Lamindao-Areatza ibilbidea. 11 km. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean.

ARTEA

19:00etan, *Mozorrotxea ez da disfrazatzea* neguko jai eta aratustei buruzko berbaldia Kultur Etxean Oier Araolazagaz. Izena aurretik emon behar da arteakoarastustek@gmail.com helbidean.



**URTAILAK 20
ZEANURI**

17:45etik 19:45era, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *iVa por ellas!* tailerra Kultur Etxean.

**URTAILAK 21
LEMOA**

17:30ean, Maite Franco ipuin kontalariaren *Matulutulu* ikuskizuna ludotekan 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat.



**URTAILAK 22
AREATZA**

Umeentzako talo tailerra Parketxeak antolatuta. Izena emon gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

IGORRE

18:30ean, *Jam session* Kiñu Gaztetxean.



LEMOA

18:00etatik, 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Chispas en casa* elektrizidade tailerra.

**URTAILAK 23
LEMOA**

11:00etan, urtekerea Gaztetxetik. Karabie

zaharraren erreketearen urteurrena.

10:00etatik 13:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Chispas en casa* elektrizidade tailerra.

19:00etan, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketaren sari banaketea eta bertso trama erotikoa. Aurkezlea: Zuriñe Yarritu. Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Sustrai Colina. Tramagilea: Arkaitz Estiballes. Publikoaren artean jostailu erotikoa bi zozketatuko dira.

**URTAILAK 24
IGORRE**

16:30ean, zinea, *Rocca cambia el mundo*; 18:45ean, *Nieva en Benidorm* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 13:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Chispas en casa* elektrizidade tailerra.

10:30ean, jantza afrikar saioa Afrodance & Moovafrika kiroldegian.

ZEANURI

18:00etan, Bertso saioa. Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze eta Unai Iturriaga. Frontoian.

**URTAILAK 25
ARANTZAZU**

18:00etatik 20:30era, sukaldaritza begetariano, agroekologiko eta osasungarriari buruzko ikastaroa Kultur Gunean.

**URTAILAK 26
ARTEA**

Oin eta behatzen estetika zerbitzua. Ordua udaletxean hartu edo 94 673 92 05 edo 94 673 92 17 telefonoetan.

**URTAILAK 27
ZEANURI**

17:45etik 19:45era, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *iVa por ellas!* tailerra Kultur Etxean.

**URTAILAK 28
LEMOA**

19:30ean, *Gaurko egun batez...* irratsaio ikuskizuna Karabie Gaztetxean.

**URTAILAK 29
BEDIA**

18:15ean, 31ra arte eski urtekerea Baqueirara udaletxe ondoan. Ganguren Mendi Taldeak eta Udalak antolatuta.

IGORRE

19:00etan, Burgoseko prozesuaren gaineko dokumentala eta mahai-ingurua Kiñu Gaztetxean.

**URTAILAK 30
AREATZA**

19:00etan, Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias-en *Matriuska* antzezlanaren komentuan. Izena hilaren 27ra arte emon ahal da Areatza urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan.

IGORRE

19:00etan, Alos Quartet taldearen kontzertua Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00etan, Belatxikietako edur-zulora urtekerea Gaztetxetik.

17:00etan, sukaldaritza tailerra 60 baino urte gehiagokoentzako. Jubiladuen etxean.

**URTAILAK 31
IGORRE**

16:30ean, zinea, *Los Croods 2: una nueva era*; 18:45ean, *El verano que vivimos* Lasarte Aretoan.

begitu
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

www.begitu.org

11:00etan, urtekerea Gaztetxetik. Karabie

KO MI KI A

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontakutuen zenbakia: 666 125 725.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko

deutsut; horretarako, plan personalizaua egingo deutsut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: naroa_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoien eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetako herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautan egon ezker idatzi konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

begitu

1
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Alos Quartet taldearen kontzerturako.

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

Galder Olibares (Igorre)
Rosa Ugartemendia (Artea)



94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umeen moda
seim
0-10
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
04 631 52 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf: 94-673-70-87
Tlf: 609-79-40-54

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behean - Igorre (Bizkaia)

Gugaz harremanetan ipinteko
Publizitatea:
649 979 115
begitu
94 631 73 14
454
649 979 112
begitu@topagunea.com www.begitu.org

begitu

arratia
ubide
zeberio



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebixean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu aprilean.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET



LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAU@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA


















begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA
Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA
Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.